



HEZKUNTZA SAILBURUAREN AGINDUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ZENTROEN AUTONOMIA ARAUTZEKO DEKRETUAREN PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA ABIANTZEKOA

AZALPEN ZATIA

2023ko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoak, hezkuntza-zentroen autonomia sistemaren oinarritzko osagai gisa definitzen du; funtsezkoa da kalitatezkoa, ekitatiboa eta inklusiboa den, eta ikasleen arrakastara bideratutako hezkuntza bermatzeko.

Aipatutako Legearen VI. tituluak berariaz aitortzen du zentroen autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta kudeaketakoa, eta haren eraginkortasunerako behar diren tresnak, prozedurak eta bermeak arauz garatzera bidaltzen du.

Autonomiari buruzko indarreko araudia sakabanatua, partziala eta eguneratu gabea da, eta horrek zaildu egiten du modu homogeneoan aplikatzea; ondorioz, disfuntzioak sortzen dira arlo garrantzitsuetan: barne-antolaketan, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzean, zuzendaritza eta lidergo pedagogikoan, ekonomia eta pertsonalaren kudeaketan, eta ebaluazio zein kontu-emate prozesuetan.

Halaber, Batxilergoko eta Oinarritzko Hezkuntzako curriculumak arautzen dituzten 76/2023 eta 77/2023 dekretuek indartu egiten dute hezkuntza-zentroen eginkizun estrategikoa, eta eguneratua, koherentea eta eraginkorra den arau-esparru baten beharra azpimarratzen dute.

2016ko ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat, Disposizio Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoarekin, alde aurreko kontsulta eta zabalkunderako jarduketak bultzatu dira, herritarren eta eraginpeko izan daitezkeen erakundeek ekarpenak jasotzeko, gardentasun, parte-hartze eta arau onaren eskakizunak errespetatuz.

Aurrez adierazitakoa kontuan hartuta, eta euskal hezkuntza-sistemari eguneratua eta integratua den arau-esparrua emateko aukerari erantzunez, bidezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-zentroen autonomia arautuko duen Dekretu-proiektua egiteko prozedura formalki abiaraztea.

Hori guztia dela eta,

EBAZTEN DUT

1. artikulua— Prozeduraren hasiera

Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoko hezkuntza-zentroen autonomia pedagogikoa, antolamendukoa eta kudeaketakoa arautuko duen dekretu-proiektua egiteko prozedura abiaraztea agintzea, eta, halaber, autonomia horren jardunari lotutako ebaluazio eta kontu-emateko mekanismoak ezartzea.

2. artikulua— Dekretu-proiektua egiteko premisak

1. Xedea eta helburua. Proiektu normatiboaren xedea zentroen autonomia-araubidea garatzea izango da, honako hauek sendotuz:



2. Bideragarritasun juridikoa eta materiala
 - a) Bideragarritasun juridikoa. Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoari Estatutuan eta Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan esleitutako eskumenen esparruan kokatzen da, bai eta 17/2023 Legean ere; azken horren 95etik 101era bitarteko artikuluek Eusko Jaurlaritza berariaz gaitzen dute arauzko garapena egiteko.
 - b) Bideragarritasun materiala. Dekretuaren ezarpena dagoeneko dauden antolaketa-egituretan oinarritzen da —zentroetan, hezkuntza-ikuskaritzan eta Sailaren unitate administratiboetan—, karga neurrigabeak edo gastu publikoaren igoerarik eragin gabe.
 3. Zuzenbide-ordenamenduan dituen ondorioak. Proiektuak arau-esparru bakarra eta integratua sortzea ekarriko du, aurreko xedapen zatikatuak edo eguneratu gabeak ordezkatzuz, eta 17/2023 Legearekin eta curriculumaren, zuzendaritzaren eta hezkuntza-sistemaren ebaluazioaren arloko indarreko dekretuekin koherentzia sendotuz.
 4. Izapideak eta nahitaezko txostenak. Proiektua izapidetzean, Disposizio Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko 6/2022 Legean aurreikusitako txostenak eskatuko dira, eta, gainera, hauek: Legezko-egokitzapenaren txostena; Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren (OCE) txostena; Sailaren txosten juridikoa; Emakunderen txostena; Hizkuntza Politikaren txostena; Funtzio Publikoaren txostena; eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena. Halaber, bidezko diren aldez aurreko kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak egingo dira.
 5. Arautzearen eduki orokorra. Besteak beste, Dekretuak honako hauek jorratuko ditu: autonomia pedagogiko eta antolamenduaren jarduna; zuzendaritza eta organo bakarkako zein kolegiatuak; kudeaketa ekonomiko eta pertsonalaren autonomia; antolaketa eta funtzionamendu arauak; hezkuntza-proiektua tresna estrategiko gisa; eta ebaluazio eta etengabeko hobekuntzaren esparrua.
3. artikulua— Prozeduraren instrukzioa eta koordinazioa
- Hezkuntza-zentroeiei buruzko eskumena duen Zuzendaritzari esleitzen zaio proiektu normatiboa egiteko behar diren lanen instrukzioa eta koordinazioa, gaiaren arabera esku hartu behar duten gainerako unitateen parte-hartzea galarazi gabe.
4. artikulua— Kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoa. Proiektua, hala badagokio, aldez aurreko kontsulta publikora, entzunaldira eta informazio publikora eramango da, 6/2022 Legean eta gardentasunaren eta gobernu irekiaren araudian xedatutakoari jarraituz, eta barne-plataformetan behar bezala hedatzea bermatuz.
5. artikulua— Bi hizkuntzatan idaztea. Dekretu-proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, bi bertsio ofizialen baliokidetasun juridikoa bermatuta eta xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko ezarritako metodoak errespetatuta.

Vitoria-Gasteiz, en la fecha de la firma electrónica

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
Hezkuntzako Sailburua